

A zer buelta!

**Maidier IANTZI
GOIENETXE**

Bueltan idatziko nizuela agindu nizuen, eta a zer buelta! Izaten dira ba gauza txar pila bat batera pasatzen diren egunak, halakoa izan zen itzulera, malda goiti itotzeko modukoa. Baina hasi gara arnasa berreskuratzen eta zelaietan atsedent hartzen. Kanpineko oporretako kontuak oroitzea bada horretarako modu bat. Aurten inoiz baino gusturago egon naiz. Kontatu nizuen gaztetxo nintzela egin dako lagun batekin elkartzekoa nintzela, 26 urteren ondotik. Zer ederra betiko Iratxe aurkitzea: fina, goxoa, lasaia... Ni beroz eta bera toallan bilduta oilo-larrutan, lehen bezala. Ondorioztatu nuen

funtsean ez garela sobera aldatzen, gure izateari eusten diogula bizitzan. Zenbat gauza gertatu diren ia hiru hamarkadatan eta paisaia berean batu gara. Zuhaitzak hazi dira, igerilekua berria da, baina iturriak, denda, ostatua, kaleak berberak dira. Sentsazio bitxia da, agertokia eta gu berak gara, baina esperientzia erabat ezberdina, bertzeak bertze biak garelako ume txiki banaren ama.

Egunerokoa idazteko ohitura hartu nuen berriro kanpinean eta zer ariketa ona den oroitu nintzen. Boligrafoa asintzen hasi eta zenbat gauza ateratzen diren, bertzela galduko liratekeenak. Idaztea memoriaren aldeko ekintza bat

da, argazkiak bezala. Zerrendazalea izaki, beti apuntatzen ditut eraman beharrekoak. Aurten, asmo onak ere paratzen nituen itzultzeko egunean. Irakurri ditut eta zortzi puntutatik ez dut bat ere bete. Baina aizue, eman denbora, ez da dena irailean egin beharrik. Bistan utziko ditut, merezi dutelako.

Abuztuko “zero denbora” luzatzeko gogoa sentitu dut sekula baino indartsuago, ez itzulera gogorra izan zelako; lehenagotik, hori jakin aitzinetik. Zero denborarekin ez dut erran nahi oporretan bizitzea, baizik eta bizitzen ari garenaz jabetzea eta ahal den heinean norbere izateari eustea egunerokoan ere. •

Sargori dago

**Xabier MIKEL
ERREKONDO**

Bero, bero sargoria dago. Klima larrialdia gainean daukagu, ez agian, ez mende erdi barru, gaur baizik, orain. Dagoeneko.

Larrialdia zenbaterainokoa izaten utziko dugu, baina? Geldiezina al da dagoeneko? Nora goaz eguzki erre eta laino itxi artean, bero sargori eta euri jasa dantza erogarrian?

Izaera sendokoak, egoskorak omen gara euskaldunak. Ez nau harritu horrek orain artean, zeren eta nago baduela zer ikusia biharamunetik goizera sarritan ematen diren eguraldi aldaketa muturrekoek. Eguzkipe goritik ihintzak jotako goiz hotzetan esnatzera ohitu garenean, edo eguzkirik gabeko egun beltz itxiek,

edo euri-zaparrada amaigabeek, tximista gezi suzkoek eta trumoi burrunba kolpeek jositako gortina sare itogarrien morroi hilabetez makurrarazi gaituztenean, “Euskadi Mordor” betean.

Klima larrialdia geldiezina da, hemen daukagu, eta ezer ez da berdin... Euskadi ez da berdin. Vivaldik egun ez luke “Lau urtaroak” obratzarra sortuko. Gora “Euskadi Tropikala!”.

Garai batean sinetsaraziko ziguteneren kontra, espiritu gaiztoek ez gaituzte egoera larri honetara ekarri, gizaki gaiztoek baizik. Abilezia naturala baitu gizakiak kalte egiteko garaian, ezina eta gabezia totalekoa, nola sakoneko konponbiderik adostu behar duenean.

Izaera sendoa dugu euskaldunok, bai, eta zalantza dut ia inguruaren egoera muturrekoak umorea aldaraziko ote digun, bihurtuko ote gaituen guztiz pragmatiko.

Izan ere, klima larrialdiak dakartzan kalteen eta etorkizun beltzaren aurrean, nik argi dut, egin beza euria, gogotik ere, hobe tropikala basamortu mortua baino, aukeran hobe ura eguzkia baino.

Muturreko latzak datoz eta nahitaez beharko dugu izan pragmatiko klima arazo erraldoiari buelta emateko edo sikiera jada ekidinezinak diren kalteei kontrolpean eusteko. Ba ote dugu, inurritxo txikiok, nahiko indarrik behar beste neurri erradikal harrarazteko? •